

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko azaroaren 3ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 702/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, Dionisio Gratal Pérez jauna laguntza berezia eskaintzeko behin-behineko langile kargutik kentzen duena, eta egindako lanarengatik eskerrak ematea.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 703/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen dituena 2016ko lehiaketa bateratuaren deialdia eta oinarriak toki administrazioko funtzionario estatu osorako gaituentzat gordetako lanpostuak betetzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 704/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, Araba Garapen Agentzia SA sozietateari dagokion zenbatekoa ordaintzen diona funtzionamendu gastuengatik

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 705/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena aldundiari posta zerbitzuak eskaintzeko xedez Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, SA enpresarekin sinatu zen kontratua luzatzearen zorpetutako zenbatekoa igotzea eta kontratuaren likidazioa. Luzapen hori maiatzaren 10eko 255/2016 Erabakiaren bidez onartu zen.

Diputatuen Kontseiluaren 706/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena aldundian jarritako SAPen lizentzien mantentze zerbitzua (Standard Support modalitatean) prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea. Aurrekontua, guztira: 283.287,54 euro (BEZa barne); gauzatzeko epea: urtebete.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 707/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena Aguraingo Udalarekin hitzarmen bat izenpetzea, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 708/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena Aguraingo Udalarekin hitzarmen bat izenpetzea, zerga gaietarako informazioa trukatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 709/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren Batasuneko Funtsen Zuzendaritza Orokorrekin izenpetu beharreko eginkizunak esleitzeko erabakia, EGEF-aren kudeaketan Arabako Foru Aldundia bitarteko erakunde izendatzeko baldintzak ezartzekoa, berresten duen Foru Arau Proiektua, Arabako Batzar Nagusiei igortzea erregelamenduzko izapideak egiteko, eta,aldi berean, baimena eskatzea hitzarmena sinatzeko, hura berretsi aurretik.

Diputatuen Kontseiluaren 710/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020rako EGEF Programa Operatibotik datozen funtsen kudeaketa eta kontrol sistemen prozedurei buruzko eskuliburua.

Diputatuen Kontseiluaren 711/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena iruzurraren aurkako borrokan eta haren prebentzioan aldundi honek duen konpromisoa, bere ardurapeko eragiketen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020rako EGEF Programa Operatiboaren baitan, bai eta Arabako Foru Aldundiaren iruzur arriskua ebaluatzeko eta kudeatzeko taldearen eragiketa, osaera, jarduketa eremua eta eginkizunak.

Diputatuen Kontseiluaren 712/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena 12/2016 konpromiso kreditua (782.836,87 euro) sortzeko espedientea, "Arabako Garraio Plan Zuzentzailea burutzea" gastuen egoeraren partidan, aurrekontu esleipena egokitzeko garraio lineen kontzesioen txartel sistema hornitu eta ezartzeko kontratu aldaketei. Eskatzailea: Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 713/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena INDESA 2010 SL sozietatearen galerak estaliko dituen ekarpena.

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 714/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen dituen lurralde historiko honetako ekoizpen joera jakin batzuetako abeltzaintza ustiategiaren aldeko laguntzak, maiatzaren 10eko 38/2016 Foru Dekretuaren bidez deituak Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1408/2013 Erregelamenduaren araberrako minimis araubidean.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 715/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, "Fulcrum, Planificación, Análisis y Proyecto, SAU" sozietateari esleitzen diona "N-240 errepidea 16,700 kilometrotik 19,900 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektua idazteko zerbitzua" emateko kontratua. Zenbatekoa: 177.749,00 euro, BEZa barne; gauzatzeko epea: 5 hilabete.

Diputatuen Kontseiluaren 716/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, behin betiko onartzen duena "N-240 errepidea 16,700 kilometrotik 19,900 kilometrora konpontzeko proiektuak" eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda eta adierazten duena ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko eta desjabetze espedientea presako prozeduraz izapidetzeko beharrezana.

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 717/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, ezesten dituen Arabako Bela Federazioak aurkeztutako alegazioak eta onartzen duena Arabako automobilismo, urpeko jarduera eta bela federazioek 2016an jasotako gutxienezko dirulaguntza itzultzeko espedientearekin jarraitzea.